

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan izan diren izendapen berriak

Xabier Aizpuruak eta Lorea Bilbaok beteko dituzte kargu berriak

Xabier Aizpuruak Hizkuntza Politikarako sailburorde berria da. Hortaz, EAJko EBBko kide aukeratu ostean Josune Ariztondo andreak utzitako kargua beteko du. Sailburorde berria hizkuntza-politikaren alorrean aditua da, eta 1995az geroztik, Kultura Saileko Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria izan da. Horrez gain, 1996az geroztik Euskararen Aholku Batzordearen idazkaria izan da. Lorea Bilbao, berriz, orain arte "Begoñako Andra Mari" Irakasle Unibertsitate Eskolako irakaslea izan da,

eta bai Euskararen Aholku Batzordearen kidea ere 1996az geroztik.

Xabier Aizpuruak kargu berrian egin dituen lehenengo adierazpenetan azpimarratu du Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko behar den adostasun politikoa nahiz soziala bultzatzea lehentasunetako bat izango dela. Horrez gain, honako helburu hauek ere nabarmendu ditu: azpiegitura publiko eta pribatuak indartzea, euskarazko hedabideak sustatzea, teknologia berrietan euskararen presentzia ziurtatzea, baita euskalduntze eta alfabetatzearekin jarraitzea ere.



EUSKALDUNON EGUNKARIA

Eibar.ORG

Euskara gero eta gehiago ari da zabalitzen Interneten. Horren adibide gisa Eibar.ORG web orria dugu. Ekimen hori Internet eta teknologia berrien erabiltzaileek osatutako "Eibartarrak" elkarteak garatutakoa da. Haren asmoak dira Interneten erabilera bultzatzea eibartarren artean, Eibarren berri ematea sarean eta Interneteko erabiltzaile euskaldunen arteko elkarlana bultzatzea, hurrenez hurren.

"Materixala" da web orri horretan dagoen atalik interesgarrienetakoa. Biblioteka digitala da. Bestalde, ez bairik gabe, "Aurki" bilatzailea da eibartar horiek egin duten ekarpenik garrantzitsuenetakoa. Izan ere, "Aurki" da euskararen lehen direktorioa eta bilatzailea. Hona helbidea: www.eibar.org/aurki

"Eibartarrak" elkartearekin harremanetan jarri nahi izanez gero, hona ondoko helbideok: www.eibar.org/zerrenda edota beste hau: www.egroups.com/group/eibartarrak

Dirulaguntzen

deialdia

Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak aurreikusi du eremu urriko hizkuntzak sustatzeko dirulaguntzen deialdia martxoaren bukaera aldera izango dela. Deialdi hori jakitera eman bezain laster, horren gaineko nondik norako guztiak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak duen web-gunean izango dituzue: www.euskadi.net/euskara/agenda

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

1 • Euskaltzaindia diruz laguntzeko hitzarmena

2 • Pertsonaia: Errose Bustintza

• Laburrak:
Telefónica
Uda Ikastaroak
Bonaparteren
Eskuizkribuak

3 • euskadi.net/euskara

4 • Izendapen berriak
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzan

• Eibar.ORG
• Europako dirulaguntzak

Euskaltzaindia laguntzeko hitzarmena sinatu dute erakundeek

208 milioi pezetako dirulaguntza emango diote aurten administrazioek

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioek Euskaltzaindiak herri-erakundeetatik jasoko dituen dirulaguntzak zehazten dituen hitzarmena sinatu dute. Aurten, guztira, 208 milioi pezetako dirulaguntza emango diote euskararen akademiari.

2000. urteko hitzarmenaz gain, bost urteko hitzarmen-markoa ere sinatu dute, 2000-2004 urte bitarteko indarraldia izango duena, hain zuzen ere. Horren bitartez, hitzarmen-sinatzailak era orokorragoan bost urtez konprometitu dira. Bestalde, sinatzaileek hala erabakiko balute, hitzarmena beste bost urte gehiagotan ere luza liteke.

Hitzarmena sinatzean, euskal erakunde publikoek, euskarari dagokionean, Euskaltzaindia erakunde arau-emaile ofizialtzat jo eta hari diruz lagunduko diotelako konpromisoa hartu dute. Horrela, 1989 eta 1995eko hitzarmenek jorratutako bidea berretsi dute.

Sinadura-ekitaldian zehar, Euskaltzaindiko presidente Jean Haritzelharrek erakundeen laguntza horiei esker Euskaltzaindiaren jarduna etorkizunean ziurtatzen dela adierazi zuen, eta hitzarmen-markoa lehen aldiz sinatu zenetik egin diren lanen garrantzia azpimarratu zuen. Besteak beste, honakook aipatu zituen: Orotariko Euskal Hiztegia, Hizkuntz Atlas, Gramatika Batua, Hiztegi Batua, eta Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistemakoa. Azken

bi lanok UZEI ari da burutzen Euskaltzaindiarentzat eta horien finantziazioa erakundeek Euskaltzaindiarekin duten hitzarmenean aurreikusirik dago.

Hitzarmena sinatu zuten 2000ko urtarrilaren 21ean UZEIk eta Euskaltzaindiak, lehenak euskararen akademiarentzat burutzen ari den lanak burutzeko modua izan dezan.

UZEI eta administrazioen arteko hitzarmena

Eusko Jaurlaritzak (Kultura Saila eta HAEE) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak UZEIrekin sinatu duten hitzarmen berriaren bidez, terminologi lanaren sistematizazioa bultzatuko du azken horrek, nazio artean eremu honetan egiten den lanarekiko homologarritasuna bilatuz, EUSKALTERM terminologi bankua garatuz eta bere kontsulta Interneten bidez eskainiz.

UZEIk honako lanok burutzea begiz jo du 2000an:

- EUSKALTERM Terminologi Bankua hasi eta eguneratzea, Euskaltzaindiaren arauen arabera. Gainera, UZEIk egindako hiztegi berriak termino-banku horretan integratuko dira, eta Justizia Saileko Normalizazio Batzordearen erabakiekin batera termino-bankua eguneratuko da.
- EUSKALTERM Terminologi Bankuaren kontsulta eskaini Internet bidez, erabiltzaileen jarraipena egin, erabilerari buruzko estatistikak prestatu, eta hitzarmeneko erakundeei beren Intraneten EUSKALTERM kontsultatzeko bidea eskaini.
- Kontsulta puntualen zerbitzua bideratu.
- Hiztegi terminologiko berriak sortu: izen geografikoen hiztegia, zuzenbide prozesalekoa, Interneti buruzkoa, eta Windows 98-ri buruzkoa.

Euskaltzaindia nahiz UZEI euskararen esparru geografiko osoan lanean ari diren izaera pribatuko bi erakunde dira, hain zuzen ere. Bion jarduera-esparrua euskararen normalizaziorako lehentasunezkoztat jotzen da.



laburrak

TELFÓNICA-REN ZERBITZUAK

Telefónica-ren 1004 zerbitzua euskaraz erabiltzeko modua egin du telefono-konpainiak. Doakoa da eta bi aukera ere eskaintzen ditu. Batetik, informazio komertziala eskatzea eta, bestetik, kekek azaltzea. 100 milioi pezeta bideratu ditu zerbitzu honetan eta, hurrena, 1003 informazio-zerbitzua ere euskaraz erabiltzeko, ahotsa ezagutzeko sistemak lantzen ari da.

Telefónica-ren zerbitzu hauek Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban izango dira erabilgarri.

UDA IKASTAROAK



Aurten, UPV-EHUREN Uda Ikastaroetan, profesionalen euskalduntze-alfabetatzeari buruzko zikloa izango da.

Uztailaren 5 eta 7 artean burutuko da eta euskaltegi-tako irakasleekin batera, Euskal Herriko eta Kataluniako hizkuntz politiken arduradunek ere hartuko dute parte.

Datozen urteotan xedez-talde berezien euskaldun-

tze-alfabetatzea da euskalgintzaren erronka nagusienetarikoa. Ikastaroak eremu horren nondik norakoa zedarritzea du helburu nagusi, hiru ikuspegiaren arabera: linguistikoa, psiko-linguistikoa eta metodologikoa.

BONAPARTEREN ESKUIZKRIBUAK




Deiker Institutuak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Bonaparte Ondareko Esquizkribuen argitalpena burutu dute. Ondare horren bilketa sistematikoari esker, Bonaparte Printzeak XIX. mendearen bukaera aldera euskal dialektologiari buruz egindako ikerketa sakona eta zabala argitaratu da.

Denera 26 liburu mardul dira, edizio kritikoan. Horrez gain, testu guztien analisisa egin da hizkuntzaren maila guztietan.

Pertsonaia

ERROSE BUSTINTZA (1899-1953)



Errose Bustintza, Basileren ahizpa txikia izan zen, Ebaristo Bustintza “Kirikiño”-ren emaztearena, alegia. Beraz, *Abarrak* idatzi zuen idazlearen loba eta koinata izan zen aldi berean. Oraindik orain Bidegileak bildumako liburuxkan Xabier Kaltzakorta irakasleak idatzi duenez, idazlearen lanak ditugu Mañarian jaio, bizi eta hil zen Erroseren nortasuna zehazteko informazio iturri-bakarrak.

Kronista, kontalaria eta poeta

Errose Bustintza *Euzkadi* egunerokoan hasi zen idazten. Egunkari honek bazuen *Euzkel-Atala* deitzen zen orrialde bat, eta *Errijetatik* deitzen zen sail bat ere bazuen. Aurrena inolako izenperik gabe hasi zen idazten *Euzkadi*-n. Berez, 1929an agertu zen lehen aldiz “Mañariko” izengoitia egunkari horretan, osabaren hilberria emanez. Harrezkero parte handiago hartu zuen *Euzkadi*-n, “bere osabaren lekua bete nahirik edo”, Kaltzakorta irakasleak idatzi duenez. Kronikak, ipuinak eta kontu laburrak idatzi zituen. Narrazio horietarik gehienak gai mitologikodunak dira, edo magikoak. Ipuinok eman zioten entzute handiena Erroseri. Izan ere, *Euskalerriko ipuiñak* izenburupean berrargitara eman zituen *Kerexetak Jesus'en Biotzaren deia*-n eta *Anaitasuna*-n. 1990ean, berriz, *Ipuinak* liburuan eman zituen argitara.

Erroseren ipuinak eta kontuak herri-herrikoak dira, eta argudio jakinekoak, baina idazlearen ukitua dute. Ez da transkribatzaile hutsa, ipuinak puztu eta edertzeko joera baitu Errosek.

Poeta ere izan zen mañariarra. Bere alderdirik ezezagunena dugu. *Milla Euskal-Olerti Eder*-en, adibidez, berak idatzi zituen lanetarik hiru ditugu: “Abestitu zarra”, “Josuren biotzari”, eta “Siaska abestia”, olerki barrenkoiak.

Errose Bustintzaren euskara

Errose Bustintza jaio zen garaikoa izan zen, eta bizkaiera jatorra erabili arren, badu garai hartako aranatarren ukitua. Izan ere, bere erredua eta *Euzkadi* egunkariko *Euzkel-Atal*-eko arduradun zen Lauaxetaren erredua bat bera dira. Gainerakoan, bitzita guztian euskaldun herri bete-betean bizi izandako lagunak erabiltzen dituen esaera eta esapideak ditu.

Emakume Abertzale Batza

Errose Bustintzak gerra aurreko mugimendu abertzalean parte hartu zuen eta Emakume Abertzale Batza taldekoa izan zen, hau da, kronikari, idazle eta folkloristak bildu zituen taldekoa, alegia. Errose izan zen balio literario handienak erakutsi zituena. Lauaxetak berak behin baino gehiagotan goraiatu egin zuen.

EUSKARARI BURUZKO INFORMAZIOARIK HANDIENA

euskadi.net/euskara HELBIDEAN

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztu du

Euskarari eta hizkuntza-politikari buruzko informazio ugari eskuratzeko aukera da Interneteko www.euskadi.net/euskara helbidean, hau dago, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen euskarari buruzko web-gunean.

Web-gune hau Lehendakariak ezarritako irizpideen arabera eta EJIEn laguntzarekin egin da eta herritarrei zuzeneko informazioa emate horretan lan-ildo berria ireki du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Web-gune honen bitartez, herritarren iradokizunak eta iritziak jasotzeko bidea samurtu nahi izan du Sailburuordetzak. Hasteko, atal bat sortu du herritarrek galderak, iradokizunak, eskaerak edo bestelako proposamenak egin ahal izateko. Aurrera begira, herritarrek hainbat tramite sarearen bidez egiteko aukera bermatu nahiko luke; adibidez, diru-laguntzak eskatzeko prozedura guztia sare bidez egin ahal izatea.

Web-gunea lau hizkuntzotan kontsulta daiteke: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Informazioa hauetariko hizkuntza batean agertzen ez denean, ondoan iragarriko da zein hizkuntzatan dagoen eskuragarri eta beste hizkuntza hartara joateko aukera zuzena izango da.

Web-gunean testu-formatuko edukiez gain,

aplikazio bereziak ere badira. Horien artean aipagarrienak honako hauek dira:

Bilakaera soziolinguistikoa

Bilakaera soziolinguistikoari dagokion atalean euskarak Euskal Autonomia Erkidegoan izan duen bilakaera jaso da. Horretarako, 1981, 1986, 1991 eta 1996 urteetako zentsuetan eta erroldetan euskarari buruz bildutako informazioa hartu da kontuan. Kontsultak on-line izango dira eta lurralde, eskualde zein udalerrri mailan egin ahal izango dira, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan, gainera, auzoz auzo ere bai. Horretaz gain, datu-baseak aukera ematen du egindako kontsulta hori denbora errealean grafiko bihurtzeko. Gaur egun, edozein kontsulta taula batean irudikatuzeko edo denbora errealean grafiko bihurtzeko aukera prestatzen ari da eta laster sarean erabiltzeko moduan izango da.

EAEko toponimia-datutegia

Datu-base hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Garraio Sailak, 1987an, Bizkaiko toponimiaren bilketa-lana egiteko eta, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak, egun Sailburuordetzak, 1991n, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera, Arabako eta Gipuzkoako toponimia biltzeko, agindutako hainbat lanen emaitza da. Toponimia biltzeaz gain, jasotako toponi-

moak, geografi eta hizkuntza-normalizazioari begira, tratatu ziren ondoren kartografia ofizialean txertatzeko.

Datu-baseak, guztira, 564.000 toponimo ditu; horietatik 117.000 behin-behineko normalizatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko 1:25.000 eskalako kartografian txertatzeko. Datu-baseak kontsultarik errazena zein landuenak egiteko aukera eskaintzen du, bai eta gaikakoak ere.

Beraz, datutegian toponimoei buruzko argibide zehatzak aurki ditzakegu.

Euskara-azpiegitura publiko eta pribatuak

Euskararen BEHATOKIA izendatu dugun datu-base hau katalogo antzekoa da. Bertan euskaraz edota euskararen sustapenaren arloan diharduten erakunde, elkarte nahiz komunikabideei buruzko oinarritzko datu eguneratuak eskaini nahi dira: helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa, web-gunea, izaera juridikoa eta jardueraren lerro nagusiak. Horrela, behar duenak erraz jarri ahal izango du harremanetan horietako edozeinekin.

Bilaketak egiteko lau aukera daude: azpiegituraren izena, jarduera-esparrua, eragin-esparrua eta kokapen geografikoa. Bilaketak egin daitezke lau bide horietariko bakar bat aukeratzuz, edota aukera bat baino gehiago elkarri loturik.

EDUKIAK

Hona hemen Euskara web-guneak egun dituen edukiak:

- 1.- Hizkuntzaren aurkezpena
 - 1.1.- Euskararen ezaugarriak
 - 1.2.- Euskararen gaineko iritziak
- 2.- Euskararen historia
 - 2.1.- Euskararen kronologia
 - 2.2.- Historiaren faktore nagusiak
 - 2.3.- Euskararen historia urratsez urrats
- 3.- Bilakaera soziolinguistikoa
 - 3.1.- Zentsuak eta erroldak
 - 3.1.1. Datu basea
 - 3.1.2. II. Soziolinguistikazko Mapa
 - 3.1.3. Aurkezpenak
 - 3.2.- Euskal Herriko inkestak
 - 3.2.1. Euskararen Jarraipena I
 - 3.2.2. Euskararen Jarraipena II
 - 3.2.3. Aurkezpenak
- 4.- Euskararen araubidea
 - 4.1.- Euskararen ofizialtasun bikoitza
 - 4.2.- Hizkuntzari buruzko arauak administrazioan
 - 4.3.- Euskara justizi administrazioan
 - 4.4.- Irakaskuntza
 - 4.5.- Komunikabideak
 - 4.6.- Euskararen marko juridikoa Frantztan
 - 4.7.- Lege-testuak
- 5.- Hizkuntza politika
 - 5.1.- Oinarritzko informazioa

- 5.1.1. EAEko hizkuntza-politikaren ildo nagusiak
- 5.1.2. Egoeraren azterketa
- 5.1.3. Hizkuntza politikaren jarduera nagusiak
- 5.1.4. Ondorioak eta etorkizuneko lehentasunak
- 5.2.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
 - 5.2.1. Egitura Dekretua
 - 5.2.2. Organigrama eta kideak
 - 5.2.3. Egitarau nagusiak
 - 5.2.4. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontuak
 - 5.2.5. Hitzarmenak
 - 5.2.6. Dirulaguntzak
- 5.3.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia
 - 5.3.1. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren argitalpena
 - 5.3.2. EBPN-ren oinarritzko txostenak
 - 5.3.3. EBPN egiteko prozeduraren azalpena
 - 5.3.4. Euskararen Aholku Batzordea
- 5.4.- Euskaltzaindia
 - 5.4.1. Aurkezpena: eginkizunak eta historia
 - 5.4.2. Egituraketa
 - 5.4.3. Egungo lanik nagusienak
 - 5.4.4. Argitalpenak
 - 5.4.5. Organigrama eta aurkitetgia
- 5.5.- Euskara-azpiegitura publiko eta pribatuak
- 6.- Argitalpenak
 - 6.1.- Euskararen Berripapera
 - 6.2.- Liburuak eta Agiriak: Bidegileak

- Literatura Unibertsala
 - Klasikoak
 - Hitzaldiak
- 6.3.- Bideoak:
 - Hitzaro
 - Lengua Viva
 - Bideo Komertzialen zerrenda
- 6.4.- CD-ROMak
 - Euskara atzo eta gaur
 - Lingua+
- 6.5.- HPSko argitalpenen zerrenda
- 7.- Toponimia
 - 7.1.- Oinarritzko egitarauak
 - 7.2.- Udalerrien izen ofizialak
 - 7.3.- Datu basea
- 8.- Euskara lantzeko tresnak
 - 8.1.- Euskararen zuzentzaile ortografikoa
 - 8.2.- Hiztegiak
 - 8.2.1. Elhuyar Hiztegia
 - 8.2.2. Hiztegia 3000
 - 8.2.3. Sinonimoen Hiztegia
 - 8.3.- Euskalterm
 - 8.4.- Kapsula
- 9.- Eremu urriko hizkuntzak
 - 9.1.- Azterlanak
 - 9.2.- Hizkuntza-komunitateak
- 10.- Agenda